

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ORMAIZTEGIKO UDALA

*Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko Ordenantzaren behin betiko onarpena.*

Ormaiztegiako Udalak, 2015eko azaroaren 16an egindako ohiko bilkuran, Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko Ordenantzaren hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Kontuan izanik jendaurrean egon den epean ez dela erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, Ordenantza hau behin betiko izaeraz onartua geratzen da. Beraz, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen, 70.2 artikulua xedatzen duena betez, aipaturiko Ordenantza hau argitaratzen da.

*Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko Ordenantza.*

I TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Helburua.*

1. Ordenantza honek, Udalaren eskuduntzen barruan, Ormaiztegiako udalerriko hiri hondakin bilketa eta tratamendua arautzea du helburu.

2. Era berean, kudeaketa bideratzen duen udalaren eta zerbitzua erabiliko dutenen arteko harremana arautzen du, alde bakoitzaren eskubide, eginbehar eta betebeharrak zehaztuz.

*2. artikulua. Aplikazio eremua.*

Ordenantza honen lurralde eremua Ormaiztegiako Udal barrutia da.

*3. artikulua. Kudeaketaren arduraduna.*

Hiri hondakin kudeaketa Ormaiztegiako Udalari dagokio.

*4. artikulua. Erabiltzaileak.*

Zerbitzu hauetako prestazioetan erabiltzaile dira zerbitzu hauen onuradun edo kaltetu diren persona fisiko nahiz juridikoak, baldin eta Ormaiztegiako Udalerrian helbidea badute.

*5. artikulua. Araudi aplikagarria.*

Ordenantza honek Hondakin apirilaren 21eko 10/1998 Legeari, 2014ko urriaren 30eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 207. zbk.an argitaratutako «Sasieta mankomunitatea osatzen duten udalerrien esparruan etxe eta merkataritza hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen Ordenantza» eta gainontzeko xedapen aplikagarriei jarraitzen die.

*6. artikulua. Hondakin definizioa.*

Ordenantza honen ondorioetarako «hondakin» gisa hartuko da: hondakinei buruz goian aipaturiko 10/98 legearen eranskinean agertzen diren kategorietakoren bati dagokion edozein

AYUNTAMIENTO DE ORMAIZTEGI

*Aprobación definitiva de la Ordenanza reguladora de la recogida y el tratamiento de residuos urbanos.*

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el 16 de noviembre de 2015, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza reguladora de la recogida y el tratamiento de residuos urbanos.

Teniendo en cuenta que en el periodo de exposición pública no se han presentado reclamaciones ni alegaciones, la Ordenanza ha quedado aprobada definitivamente, por lo que en cumplimiento de lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación íntegra de la citada Ordenanza.

*Ordenanza reguladora de la recogida y el tratamiento de residuos urbanos.*

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto.*

1. El objeto de la presente Ordenanza es la regulación, dentro de las competencias propias del Ayuntamiento, de la recogida y el tratamiento de los residuos urbanos del municipio de Ormaiztegi.

2. Asimismo, regula la relación entre el Ayuntamiento (el encargado de la gestión) y las personas usuarias del servicio, especificando los derechos, obligaciones y requisitos de cada una de las partes.

*Artículo 2. Ámbito de aplicación.*

El ámbito territorial de la presente Ordenanza es el distrito municipal de Ormaiztegi.

*Artículo 3. Responsable de la gestión.*

La gestión de los residuos urbanos corresponde al Ayuntamiento de Ormaiztegi.

*Artículo 4. Personas usuarias.*

Son usuarias de estas prestaciones todas las personas físicas y jurídicas que resulten beneficiarias o perjudicadas en el citado servicio, siempre y cuando tengan dirección en el Municipio de Ormaiztegi.

*Artículo 5. Normativa aplicable.*

Esta Ordenanza se basa en la Ley 10/1998 de 21 de abril, en la «Ordenanza reguladora del servicio de recogida y tratamiento de residuos domésticos y comerciales en el ámbito de los municipios que integran la Mancomunidad Sasieta», publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa número 207, de 30 de octubre de 2014, y en el resto de disposiciones aplicables.

*Artículo 6. Definición de residuos.*

A efectos de la presente Ordenanza, se considerará «residuo» cualquier sustancia o cosa que corresponda a alguna de las categorías recogidas en el anexo de la anteriormente citada

sustantzia edo gauza, baldin eta horren edukitzaileak botatzen badu edo botatzeko asmoa edo betebeharra badu.

Nolanahi ere, Europako Batasuneko Erakundeek onarturiko Hondakinei buruzko Europako Katalogoan (CER) adierazten direnak ere hartuko dira hondakin gisa.

## II TITULUA

### BILKETA ZERBITZUA

#### I. KAPITULUA. ETXEZ ETXEKO BILKETA

##### 7. artikulua. *Etxez etxe biltzen diren hondakinak.*

Ordenantza honen ondorioetarako, etxez etxe zabor bilketaren barruan ondoko hondakin hauek sartuko dira:

A) Etxeko kontsumo eta elikadurak sortutako hondakinak eta detritusak, ontziteria edo beira hondakinak, ontziak, enbala-jeak, kartoiak, oinetako edo jantzien hondakinak eta orokorrean edozein etxetan sortutako zaborreria, aurrez udalak jarritako egun, ordu, modu eta lekuetan biltzeko.

B) A atalean aipatutakoen antzeko jatorria dutenak, baina dendetan, industrietan eta zerbitzuetan sortuak, aurreko atalean adierazitako baldintzetan prestatuta.

C) A ataleko berberak, baina hauek jantoki, eskola, eraikin publiko, eliza, jolas-gune eta abarretan sortuak, A atalean aipatutako baldintzetan prestatuta.

D) Merkatu, feria, festa publiko, etab.en garbiketetatik sortutako hondakinak, A atalean aipatutako baldintzetan prestatuta.

##### 8. artikulua. *Etxez etxe bilketatik kanpo gelditzen diren hondakinak.*

Kanpoan geratzen dira eta, hortaz, etxez etxe bilketan hartu beharrik ez da egongo, honako hondakin hauek:

– Indusketa produktuak, hareak, lurrak, industrietako errausak, eta herri-lanetako nahiz lan pribatuetako zaborrak.

– Edozein pneumatiko mota, estalkiak, industri prozesuetako hondakin plastikoak, bernizak, pinturak, kolak, likido korrosiboak, koipeak eta olioak.

– Bidoiak, lata handiak, zumitzak, eta txirbilak.

– Inausketa eta lorazaintzako hondakinak.

– Abeltzaintzako abelburu hilak.

– Altzarien eta tamaina handikoen bilketan: isolatutzat edo bakartzat jo ezin diren altzariak edo etxeak altzariz janztean sortzen direnak, bai eta etxeak altzariz janztean edo etxez aldatzean sortzen diren bilgarriak ere.

– Etxeetan era guztietako obrak eta berrikuntzak egiten dituzten herritar, gremio eta arduradunek sortutako hondakinak, hala nola zaborra, egurra, leiho- edo ate-markoak, zokaloak, persianak, oholtza, zoruak, moketa, bainuontziak, komunontziak, konketak, sukaldeko altzariak, erradiadoreak edo antzekoak eta, oro har, obretan sortzen direnak.

– Udalak zehaztu gabe dauden beste hiri-hondakin mota batzuk sartu ahal izango ditu aurreko zerrendetan, baldin eta beren ezaugarri bereziengatik edo izaeragatik, hondakinen bilketarako udal zerbitzuak bere gain hartu ezin baldin baditu.

##### 9. artikulua. *Derrigorrezko zerbitzua.*

Udala derrigortuta dago etxez etxe hondakinen bilketa egitera eta, hortaz, 7. artikuluan adierazitako materialak biltzeko ardura hartuko du.

Ley 10/98, siempre y cuando sea desechada por su poseedor o el poseedor tenga la intención u obligación de desecharla.

En todo caso, tendrán la consideración de residuo, asimismo, los mencionados en el Catálogo Europeo de Residuos (CER) aprobado por las instituciones de la Unión Europea.

## TÍTULO II

### SERVICIO DE RECOGIDA

#### CAPÍTULO I. RECOGIDA A DOMICILIO

##### Artículo 7. *Residuos recogidos a domicilio.*

A efectos de esta Ordenanza, se incluirán en la recogida de basura a domicilio los residuos siguientes:

A) Residuos y detritus generados en la alimentación y el consumo doméstico, residuos de vajilla y vidrio, envases, embalajes, cartones, residuos de calzado y prendas, y desechos en general producidos en cualquier casa, para su posterior recogida en el día, la hora, la forma y el lugar establecidos por el Ayuntamiento.

B) Residuos cuyo origen es similar al de los mencionados en el apartado A, pero generados en tiendas, industrias y servicios, preparados en las mismas condiciones señaladas en el apartado anterior.

C) Los mismos del apartado A, pero producidos en comedores, escuelas, edificios públicos, iglesias, zonas lúdicas etc., preparados en las mismas condiciones señaladas en el apartado A.

D) Residuos generados en mercados, ferias, fiestas públicas, etc., preparados en las mismas condiciones señaladas en el apartado A.

##### Artículo 8. *Residuos no incluidos en la recogida a domicilio.*

Los siguientes residuos quedan excluidos y, por lo tanto, no resultará obligatorio recogerlos a domicilio:

– Productos de excavación, arenas, tierras, cenizas industriales y basuras de obras públicas y privadas.

– Cualquier tipo de neumático, cubiertas, residuos plásticos de procesos industriales, barnices, pinturas, colas, líquidos corrosivos, grasas y aceites.

– Bidones, latas grandes, mimbres y virutas.

– Residuos de poda y jardinería.

– Reses muertas de ganado.

– Dentro de la recogida de muebles y objetos de gran tamaño: muebles que no pueden ser considerados como aislados o únicos, residuos generados al amueblar casas, así como los envoltorios que sobran después de amueblar casas o mudarse de vivienda.

– Residuos generados por la ciudadanía, los gremios y las personas responsables de realizar todo tipo de obras y reformas en viviendas: por ejemplo, basura, madera, marcos de puertas y ventanas, zócalos, persianas, tarimas, suelos, moquetas, bañeras, retretes, lavabos, muebles de cocina, radiadores y similares, y, en general, los residuos generados en obras.

– El Ayuntamiento podrá incluir otros residuos urbanos en las listas anteriores en el caso de que el servicio municipal de recogida de residuos no pueda hacerse cargo de ellos debido a sus características especiales o a su naturaleza.

##### Artículo 9. *Servicio obligatorio.*

El Ayuntamiento está obligado a realizar la recogida a domicilio, por lo que se hará cargo de la recogida de los materiales detallados en el Artículo 7.

**10. artikulua. Prestazioak.**

Zerbitzu horren egin beharrak honako hauek dira:

– Hondakinak uzteko modu eta tokietatik bilketa ibilgailuetara eraman eta han hustu.

– Hustu ondoren, edukiontzia bere lekuetara itzuli.

– Lan horien ondorioz bide publikora eroritako hondakinak jaso.

– Hondakinak zehaztuak dauden tratamendu guneetara edo transferentzia zentroetara eraman eta han hustu, bertan trata ditzaten.

**11. artikulua. Zerbitzuaren prestazioa.**

Etxeko zaborren mota guztietako bilketen maiztasuna Udalak eta Sasieta Mankomunitateko zerbitzuek erabakiko dute, bien interesak kontuan hartuta.

**12. artikulua. Programazioa.**

Udalak jakitera emango du bilketa zerbitzuaren programa: egunak, ordutegiak eta bitartekoak.

Hala ere, zerbitzuak izan ditzakeen beharren arabera, interes publikoari begira egokituz jotzen dituen aldaketak egin ahal izango ditu Udalak, aldeztu aurretik ordutegi, bilketa erak edo maiztasun aldaketan berri emanda. Dena den, larrialdi, uste-kabe edo ezinbesteko egoeretan bidezko diren xedapenak emango ditu alkateak. Zehaztapenak Alkatetza-Bando baten bidez erregulatuko dira.

**13. artikulua. Larrialdiak.**

Larrialdi egoeretan, direla gizarte-gatazkak, uholdeak edo ezinbesteko egoeratik zerbitzua eskaintzerik ez dagoenean, eta Udalak aldeztu aurretik jakinarazten badu, bizilagunek ez dituzte aterako hondakinak, zerbitzua bere onera etorri bitartean, edo Udalak bidezko aginduak eman bitartean.

**14. artikulua. Hiri hondakinak biltzeko gune edo puntuak.**

Udal zerbitzuek erabakiko dituzte zonalde bakoitzean erabili beharreko biltze guneak eta, haien motak, kopurua eta kokapenak, udalerraren interesak kontuan hartuta.

**15. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizuna.**

Etxebizitza, merkataritza-gune, biltegi, azoka, ikuskizunetako lokal, ikastetxe, industria eta osasun establezimenduen jabe edo erabiltzaile guztiek eta, oro har, zerbitzu honek eragiten dituen erabiltzaile edo onuradun guztiek:

- a) Udal bilketa-zerbitzua erabiltzeko eskubidea dute.
- b) Hondakinen arloan aplikagarria den araudia betetzeko obligazioa dute, batez ere Ordenantza honetan jasotzen dena.
- c) Udalak eskatuta, hondakinak botatzen dituen pertsona identifikatzeko obligazioa dute.

**16. artikulua. Erabilpen arauak.**

1. Zerbitzuaren erabiltzaileak, hondakin atal bakoitza ondo sailkatuta eta Udalak horretarako jarritako egun, ordu, modu eta lekuetan utzi beharko ditu.

2. Debekatuta dago hondakin likido zein urtzeko moduko ateratzea.

**Artículo 10. Prestaciones.**

Las tareas del mencionado servicio son las siguientes:

– Recoger los residuos de sus respectivas formas y lugares de recogida, llevarlos a los vehículos y vaciarlos.

– Devolver los contenedores a su sitio después de haberlos vaciado.

– Recoger los residuos precipitados a la vía pública por causa de los trabajos mencionados.

– Trasladar los residuos a los lugares de tratamiento o centros de transferencia establecidos, y depositarlos para que puedan ser tratados.

**Artículo 11. Prestación del servicio.**

La frecuencia de todos los tipos de recogida de residuos de los hogares será decisión del Ayuntamiento y de la Mancomunidad de Sasieta, teniendo en consideración los intereses de ambos.

**Artículo 12. Programación.**

El Ayuntamiento dará a conocer la programación del servicio de recogida: días, horarios y medios.

No obstante, dependiendo de las necesidades que pudieran surgir en el servicio, el Ayuntamiento podrá realizar los cambios que estime necesarios por motivos de interés común, comunicando con antelación los cambios de horarios, formas de recogida o frecuencias. En todo caso, si surge alguna urgencia o algún imprevisto, o en los casos necesarios, el alcalde dictará las disposiciones que procedan al respecto. Los asuntos más concretos serán regulados por un Bando de Alcaldía.

**Artículo 13. Urgencias.**

En situaciones de urgencia, ya sean conflictos sociales, inundaciones o cuando resulte imposible ofrecer el servicio por razones de fuerza mayor, y en caso de que el Ayuntamiento lo comuniquen con anterioridad, los y las habitantes no verterán los residuos hasta que el servicio recupere la normalidad o hasta que el Ayuntamiento dé las órdenes que procedan.

**Artículo 14. Lugares o puntos de recogida de residuos urbanos.**

Serán los servicios municipales quienes decidan los lugares de recogida que deberán emplearse en cada zona, así como los tipos, la cantidad y las ubicaciones de recogida, teniendo siempre en cuenta los intereses del municipio.

**Artículo 15. Derechos, obligaciones y responsabilidad de las personas usuarias.**

Todos los dueños y dueñas y personas usuarias de viviendas, lugares comerciales, almacenes, mercados, locales de espectáculos, centros educativos, industrias y establecimientos sanitarios y, en general, todas las personas usuarias o beneficiarias de este servicio:

- a) Tienen el derecho de utilizar el servicio de recogida municipal.
- b) Tienen la obligación de cumplir con la normativa aplicable en materia de residuos, especialmente con la recogida en la presente Ordenanza.
- c) A petición del Ayuntamiento, tienen la obligación de identificar a la persona que deposita los residuos.

**Artículo 16. Normas de utilización.**

1. Las personas usuarias deberán depositar cada fracción de los residuos debidamente clasificada y en el día, la hora, la forma y el lugar fijados por el Ayuntamiento para tal fin.

2. Queda prohibido depositar residuos líquidos y derretibles.

3. Debekatuta dago hondakinak nonahi uztea. Erabiltzaileak behartuta daude jarritako ordutegian, lekuetan eta moduan uztera.

4- Debekatuta dago bilketa lekuak hondatu edo desitxuratu dezakeen edozein ekintza.

*17. artikulua. Hondakin organikoen gaikako bilketa.*

Zerbitzua erabiltzen dutenak behartuta daude hondakin organikoak uztera, Udalak horretarako adierazitako modu, edukiontzi eta ordutegiaren arabera. Udalak erabakitako moduan egongo dira eskuragarri edukiontziak irekitzeko giltza eta zabor poltsa bereziak. Debekatuta gelditzen da edukiontzietatik kanpo edozein hondakin organiko uztea.

*18. artikulua. Papera eta kartoiaren gaikako bilketa.*

Zerbitzua erabiltzen dutenak behartuta daude papera eta kartoa uztera, Udalak horretarako adierazitako modu, edukiontzi eta ordutegiaren arabera. Debekatuta gelditzen da edukiontzietatik kanpo edozein pape edo kartoi uztea.

*19. artikulua. Ontzi arinen gaikako bilketa.*

Zerbitzua erabiltzen dutenak behartuta daude ontzi arinak uztera, Udalak horretarako adierazitako modu, edukiontzi eta ordutegiaren arabera. Debekatuta gelditzen da edukiontzietatik kanpo edozein ontzi arin uztea.

*20. artikulua. Beirazko ontzikien gaikako bilketa.*

Zerbitzua erabiltzen dutenak behartuta daude beirazko ontziak uztera, Udalak horretarako adierazitako modu, edukiontzi eta ordutegiaren arabera. Debekatuta gelditzen da edukiontzietatik kanpo edozein beirazko ontzi uztea.

*21. artikulua. Errefus zatiaren gaikako bilketa.*

Zerbitzua erabiltzen dutenak behartuta daude errefus zatia uztera, Udalak horretarako adierazitako modu, edukiontzi eta ordutegiaren arabera. Astelehenetan gaueko 10:00etatik aurrera atara ahal izango dira etxeko edukiontziak, eta dagozkion zutabeetan zintzilikatu.

*22. artikulua. Ohialak.*

Zerbitzua erabiltzen dutenak behartuta daude ohialak uztera, Udalak horretarako adierazitako modu, edukiontzi eta ordutegiaren arabera. Udalak erabakitako moduan egongo dira eskuragarri edukiontziak irekitzeko giltzak. Debekatuta gelditzen da edukiontzietatik kanpo edozein ohial uztea.

*23. artikulua. Zakur gorotzak.*

Zakurren jabeak behartuta daude bere jabetzako zakurrak leku publikoan egindako gorotzak bildu, eta Udalak horretarako jarritako edukiontzieta uztera.

*24. artikulua. Merkataritza, ostalaritza eta elkarteak.*

Merkataritza zein ostalaritzako arduradunak behartuta egongo dira hondakinak aurreko artikuluetan adierazten den moduan kudeatzera; hau da, horiek ere hondakinak zatika banatu beharko dituzte eta zati bakoitza 17, 18, 19., 20., 21. eta 22. artikuluetan adierazten den moduan kudeatu.

3. Queda prohibido depositar los residuos en cualquier lugar. Las personas usuarias están obligadas a hacerlo en el horario, los lugares y en la forma establecida.

4. Queda prohibida cualquier acción que pueda deteriorar o deformar los lugares de recogida.

*Artículo 17. Recogida selectiva de residuos orgánicos.*

Las personas usuarias del servicio están obligadas a depositar los residuos orgánicos en la forma, los contenedores y los horarios fijados por el Ayuntamiento para tal efecto. La llave para la apertura de contenedores y las bolsas especiales de basura estarán accesibles en la manera determinada por el Ayuntamiento. Queda prohibido depositar cualquier residuo orgánico fuera de los contenedores.

*Artículo 18. Recogida selectiva de papel y cartón.*

Las personas usuarias del servicio están obligadas a depositar el papel y el cartón en la forma, los contenedores y los horarios fijados por el Ayuntamiento para tal efecto. Queda prohibido depositar cualquier papel o cartón fuera de los contenedores.

*Artículo 19. Recogida selectiva de envases ligeros.*

Las personas usuarias del servicio están obligadas a depositar los envases ligeros en la forma, los contenedores y los horarios fijados por el Ayuntamiento para tal efecto. Queda prohibido depositar cualquier envase ligero fuera de los contenedores.

*Artículo 20. Recogida selectiva de recipientes de vidrio.*

Las personas usuarias del servicio están obligadas a depositar los recipientes de vidrio en la forma, los contenedores y los horarios fijados por el Ayuntamiento para tal efecto. Queda prohibido depositar cualquier recipiente de vidrio fuera de los contenedores.

*Artículo 21. Recogida selectiva de la fracción de rechazo.*

Las personas usuarias del servicio están obligadas a depositar la fracción de rechazo en la forma, los contenedores y los horarios fijados por el Ayuntamiento para tal efecto. Los contenedores domésticos podrán ser depositados los lunes a partir de las 10:00 de la noche, y deberán colgarse en los postes correspondientes.

*Artículo 22. Tejidos.*

Las personas usuarias del servicio están obligadas a depositar los tejidos en la forma, los contenedores y los horarios fijados por el Ayuntamiento para tal efecto. Las llaves para la apertura de los contenedores estarán accesibles en la manera determinada por el Ayuntamiento. Queda prohibido depositar cualquier tejido fuera de los contenedores.

*Artículo 23. Excrementos de perro.*

Las dueñas y dueños de perros están obligados a recoger los excrementos que dejen sus perros en lugares públicos y a depositarlos en los contenedores fijados por el Ayuntamiento para tal efecto.

*Artículo 24. Comercio, hostelería y asociaciones.*

Las personas responsables de comercios y locales de hostelería estarán obligadas a gestionar los residuos en la forma establecida en los artículos anteriores; es decir, también deberán dividir los residuos en fracciones y gestionar cada fracción en la forma indicada en los Artículos 17, 18, 19, 20, 21 y 22.

## II. KAPITULUA. BILKETA BEREZIAK

### I ATALA. Altzari, etxeko tresneria eta traste zaharren bilketa

#### 25. artikulua.

1. Altzariak, etxeko tresneria eta traste zaharrak Garbiguneak ezarritako egun, modu, toki eta ordutegian utzi behar dira.

2. Debekatuta geratzen da beraz, horiek bide publikoan uztea beste edozein egun, modu, toki edo ordutegian.

3. Zerbitzu horrek edozein motatako altzariak, etxeko tresneria eta traste zaharrak bilduko ditu, baldin eta haiek maneiatzeko baliabide mekanikorik erabili behar ez bada; hau da, garabi, polea eta abar behar ez baditu.

### II ATALA. Hondakin toxikoak

#### 26. artikulua. Sukaldeko olioak.

1. Mota horretako hondakinak Udalak horretarako adierazitako modu, edukiontzi eta ordutegian utzi beharko dira.

2. Debekatuta geratzen da beraz, horiek bide publikoan uztea beste edozein egun, modu, toki edo ordutegian.

#### 27. artikulua. Pilak.

1. Mota horretako hondakinak Udalak horretarako adierazitako modu, edukiontzi eta ordutegian utzi beharko dira.

2. Debekatuta geratzen da beraz, horiek bide publikoan uztea beste edozein egun, modu, toki edo ordutegian.

#### 28. artikulua. Oinetakoak eta arropa zaharra.

1. Mota horretako hondakinak Udalak horretarako adierazitako modu, edukiontzi eta ordutegian utzi beharko dira.

2. Debekatuta geratzen da beraz, horiek bide publikoan uztea beste edozein egun, modu, toki edo ordutegian.

#### 29. artikulua. Etxeetan sortzen diren gainontzeko hondakin arriskutsuak.

Mota horretako hondakinak Garbigunera eraman beharko dira. Atal horretan sartzen dira: lanpara fluoreszente zein beste-lakoak, mugikorren bateriak zein mugikorrek berak, pintura, disolbatzaile eta abarren poteak eta abar luze bat.

### III ATALA. Obra hondakinak

#### 30. artikulua.

1. Erabat debekatuta dago udalerrri honetako kale, parzela edo guneeetan edozein obra hondakin uztea.

2. Mota horretako hondakinak Garbigunera eraman beharko dira, Udalak horretarako adierazitako modu, edukiontzi eta ordutegian bildu ondoren.

#### 31. artikulua.

1. Obra hondakin edo lurren garraioa behar bezalako baldintzetan egin beharko da, saihestuz beti ere, bide publikoa zikintzea. Horretarako beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira.

2. Bide publikoa zikinduz gero garbitu eta lehenera itzuli beharko da.

## CAPÍTULO II. RECOGIDAS ESPECIALES

### APARTADO I. Recogida de muebles, utensilios del hogar y viejos utensilios

#### Artículo 25.

1. Los muebles, utensilios del hogar y viejos utensilios deberán ser depositados en el día, la forma, el lugar y el horario fijado por Garbigunea.

2. Queda pues prohibido depositarlos en la vía pública en cualquier otro día, forma, lugar u horario.

3. El citado servicio recogerá cualquier tipo de muebles, utensilios del hogar y viejos objetos siempre y cuando no sea necesario el empleo de alguna herramienta mecánica para manejarlos, como, por ejemplo, grúas, poleas, etc.

### APARTADO II. Residuos tóxicos

#### Artículo 26. Aceite de cocina.

1. Los residuos de este tipo deberán depositarse en la forma, los contenedores y los horarios fijados por el Ayuntamiento para tal efecto.

2. Queda pues prohibido depositarlos en la vía pública en cualquier otro día, forma, lugar u horario.

#### Artículo 27. Pilas.

1. Los residuos de este tipo deberán depositarse en la forma, los contenedores y los horarios fijados por el Ayuntamiento para tal efecto.

2. Queda pues prohibido depositarlos en la vía pública en cualquier otro día, forma, lugar u horario.

#### Artículo 28. Calzado y prendas viejas.

1. Los residuos de este tipo deberán depositarse en la forma, los contenedores y los horarios fijados por el Ayuntamiento para tal efecto.

2. Queda pues prohibido depositarlos en la vía pública en cualquier otro día, forma, lugar u horario.

#### Artículo 29. Resto de residuos peligrosos producidos en el hogar.

Los residuos de este tipo deberán ser trasladados a Garbigunea. Se incluyen: lámparas fluorescentes y de otros tipos, móviles y sus baterías, pintura, botes de disolventes y demás, y un largo etcétera.

### APARTADO III. Residuos de obras

#### Artículo 30.

1. Queda terminantemente prohibido depositar cualquier residuo de obra en calles, parcelas o zonas de este municipio.

2. Los residuos de este tipo deberán ser trasladados a Garbigunea en la forma, los contenedores y los horarios fijados por el Ayuntamiento para tal efecto.

#### Artículo 31.

1. El traslado de tierras y residuos de obra deberá realizarse en las debidas condiciones, evitando siempre ensuciar la vía pública. Para ello, deberán tomarse las medidas necesarias.

2. En caso de ensuciar la vía pública, deberá limpiarse y devolverlo a su estado original.



### III. KAPITULUA. AUTOKONPOSTA

#### I ATALA. Autokonposta egiteko prozedura

##### 32. artikulua.-Autokonposta egiteko gune edo puntuak.

Udal zerbitzuek erabakiko dituzte zonalde bakoitzean erabili beharreko guneak eta, haien motak, kopurua eta kokapenak, udalerrriaren interesak kontuan hartuta.

##### 33. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizuna.

Erabiltzaile guztiek eta, oro har, zerbitzu honek eragiten dituen erabiltzaile edo onuradun guztiek:

- a) Udalak erabakitako modu, denbora eta guneetan auto-konposta egiteko eskubidea dute.
- b) Hondakinen arloan aplikagarria den araudia betetzeko obligazioa dute, batez ere Ordenantza honetan jasotzen dena.
- c) Udalak konposta egiteko duen makinaren bitartez txikiketa lanak egiteko eskaera egiteko eskubidea dute.
- d) Udalak eskatuta, hondakinak botatzen dituen pertsona identifikatzeko obligazioa dute.
- e) Autokonposterako ezarritako postuen arduradunak identifikatuta egon behar dute.

##### 34. artikulua. Erabilpen arauak.

1. Sasietako teknikarien esku geldituko da autokonposta egiteko moduak zehazteko eskumena.
2. Zerbitzuaren erabiltzaileak, baimendutako hondakinak bakarrik utzi beharko ditu, eta erabakitako moduan tratatu.
3. Txikiketa lanak Udalak baimendutako pertsonak egingo du edozein kasutan.
4. Debekatuta dago bilketa lekuak hondatu edo desitxuratu dezakeen edozein ekintza.
5. Udalaren esku dago autokonposta egiteko zerbitzua mantendu edo bertan behera uzteko eskumena.

### III. TITULUA

#### ZEHAPEN ARAUBIDEA

#### I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

##### 35. artikulua.

Ordenantza honetan ezarritakoa hausten duten ekintzei zigorra jarriko zaie, Ordenantzan bertan ezarritakoaren arabera eta hura garatzen edota osatzen duten lege xedapenetan ezarritakoaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zehatzeko ahalmenari buruzko 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Zigortzeko ahalmena gauzatzeko prozedurari buruzko arautegia onesten duen 1398/1998 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, eta Hondakinen 10/1998 Legea, apirilaren 21ekoa).

##### 36. artikulua. Eskumena.

Ordenantza honetan aurreikusitako zigorrak jartzeko eskumena duen organoa Alkatetza da, edo Alkatetzak eskumen hori deskonzentratuz izendatzen duen organoak, abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren 10. artikulua 4. eta 3. atal-letan xedatutakoarekin bat etorritz.

### CAPÍTULO III. AUTOCOMPOST

#### APARTADO I. Procedimiento de autocompost

##### Artículo 32. Lugares y puntos de autocompost.

Serán los servicios municipales quienes decidan los puntos que deben utilizarse en cada zona y el tipo, la cantidad y la ubicación de los mismos, teniendo en consideración los intereses del municipio.

##### Artículo 33. Derechos, obligaciones y responsabilidad de las personas usuarias.

Todas las personas usuarias y, en general, las personas usuarias o beneficiarias de este servicio:

- a) Tienen el derecho de hacer autocompost en la forma, el tiempo y los puntos determinados por el Ayuntamiento.
- b) Tienen la obligación de cumplir la normativa aplicable en materia de residuos, especialmente la recogida en la presente Ordenanza.
- c) Tienen el derecho de solicitar el uso de la máquina de compost del Ayuntamiento para las labores de trituración.
- d) A petición del Ayuntamiento, tienen la obligación de identificar a la persona que deposita los residuos.
- e) Las personas responsables de los puestos de autocompost deberán estar identificadas.

##### Artículo 34. Normas de utilización.

1. La competencia para la determinación de las formas de autocompost quedará en manos de las técnicas y técnicos de Sasieta.
2. Las personas usuarias del servicio deberán depositar únicamente residuos autorizados, y deberán tratarlos en la forma determinada.
3. En cualquier caso, las labores de trituración serán realizadas por las personas autorizadas por el Ayuntamiento.
4. Queda prohibida cualquier acción que suponga el deterioro o la deformación de los lugares de recogida.
5. La competencia para el mantenimiento y la cancelación del servicio de autocompost corresponde al Ayuntamiento.

### TÍTULO III

#### RÉGIMEN DE SANCIÓN

#### CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

##### Artículo 35.

Serán objeto de sanción las acciones que incumplan lo establecido en la presente Ordenanza, en base a lo establecido en la propia Ordenanza y en las disposiciones legales de su desarrollo y formación (Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco; Real Decreto 1398/1998, de 4 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento del procedimiento para el ejercicio de la Potestad Sancionadora; y Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos).

##### Artículo 36. Competencia.

La competencia para imponer las sanciones previstas en la presente Ordenanza corresponde a la Alcaldía o al órgano que ésta asigne mediante la desconcentración de dicha competencia, de acuerdo con lo dispuesto en las secciones 3 y 4 del artículo 10 del Real Decreto 1398/1993 de 4 de agosto.

**37. artikulua. Arau-hausteen erantzuleak.**

1. Honako egoeraren batean dauden pertsona fisiko edo juridikoak izango dira Ordenantza honetan adierazitako arau-hausteen «erantzuleak»:

a) Ordenantza honetako arauak hausten dituzten ekintzetako bat zuzenean egitea, beraien izenean edo pertsona juridiko gisa eraturiko enpresen ordezkari edo arduradun gisa.

b) Arautegi hori betetzen ez dela aurreikusitako eta eskatzeko legezko betebeharrak ez betetzea, eta beraz, a) atalean adierazitako pertsonen Ordenantza hauetako arauak hausteko aukera ematea.

2. Aurreko puntuan ezarritakoaren arabera, erantzukizuna solidarioa izango da kasu hauetan:

a- Hondakinen jabeak, edukitzaileak edo kudeatzaileak hondakin horiek legez baimendutakoa ez den pertsona fisiko edo juridiko bati ematen dizkionean.

b- Erantzuleak bat baino gehiago direnean eta horietako bakoitzak dagokion arau-haustean zenbaterainoko partaidetza izan duen zehazterik ez dagoenean.

**II. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

**38. artikulua. Arau-haustea.**

Kapitulu hau uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 49.3 artikulua 46.3.c) artikuluari loturik alor honetan Toki Erakundeak esleitutako zigortzeko ahalmenaren eta arau-hausteen garapen gisa erregulatu da. Artikulu horien arabera, Toki Erakundeak titularrak, arauhauste larria egiteagatik, hots, «edozein hondakin-mota ezarritako kontrol gabe utzi, bota edo deuseztatzeagatik, ingurumenarentzat kalte edo hondamen larrikeria eragin gabe edo pertsonen osasuna arrisku larrikeria jarri gabe, zigor bat jarri ahal izango du, 90,10 eta 45.000 € bitartekoa».

1. Arau-hauste oso larrikeria izango dira:

a) Udaletxeak dagokion errekerimendua egin ondoren, arriskutsuak eta toxikoak izan daitezkeen hondakinei buruzko informazioa ez ematea.

b) Hilda dauden animaliak bide publikoan uztea.

c) Ordenantza honen arabera etxetik etxeko bilketatik kanpo gelditzen diren hondakinak hiri-hondakinen artean uztea.

d) Hiri-hondakinak jasotzeko jarritako edukiontzia eta tresnak nahita kaltetzea, zerbitzua suntsitzea edo bertan behera uztea xedetzat duten bitarteko edo moduen bidez.

Halaber, arau-hauste oso larrikeria izango da 2 zigor jaso izana arau-hauste larrikeria urtebeteko epean.

2. Arau-hauste larrikeria dira:

a) Hondakinak beste pertsona edo erabiltzaile batek utzi behar dituen lekuan uztea, edo/eta hondakinak nahasten ibiltzea.

b) Erabiltzaileak, arrazoi justifikaturik gabe eta derrigorrezko denean, berak sortutako hondakinak bilketa-zerbitzuaren esku uzteari uko egitea.

c) Hondakinak jasotzeko bitartekoak funtzional edo estetikoki kaltetzea, betiere aurreko puntuko d) atalean oso larrikeria josten ez bada.

d) Hondakinak jasotzeko tresnak mugitzea, lekuz aldatzea edo behar ez bezala erabiltzea, betiere, azken kasu horretan, egoera arriskutsuak sor baditezke edo zerbitzuko langileei hondakin-bilketa zaildu badiezaiekete, administrazioaren alde aurreko baimenik gabe.

f) Hondakinak kargatu, deskargatu eta garraiatzeko lanak eragozteko edo zailtzea.

**Artículo 37. Responsables de las infracciones.**

1. Las personas «responsables» de las infracciones detalladas en la presente Ordenanza serán las personas físicas o jurídicas que se encuentren en alguna de las siguientes situaciones:

a) Realizar directamente cualquier acción que suponga el incumplimiento de las normas fijadas en esta Ordenanza, por sí mismas o como representantes o responsables de alguna empresa formada como persona jurídica.

b) Incumplir la obligación legal de previsión y petición cuando no se cumpla dicha normativa, y permitir, por tanto, a las personas indicadas en la sección a) el incumplimiento de las normas establecidas en la Ordenanza.

2. De acuerdo con lo establecido en el punto anterior, la responsabilidad será solidaria en los casos siguientes:

a) Cuando el dueño, poseedor o gestor de los residuos entregue dichos residuos a una persona física o jurídica no autorizada legalmente.

b) Cuando las personas responsables sean más de una y resulte imposible especificar la magnitud de la participación de cada una de ellas en la infracción.

**CAPÍTULO II. INFRACCIONES Y SANCIONES**

**Artículo 38. Infracciones.**

El presente artículo ha sido regulado como desarrollo de las infracciones y la capacidad de sanción adjudicada a la instituciones locales por el artículo 49.3 de la Ley 22/2011 de 28 de julio, junto con el artículo 46.3.c). De acuerdo con dichos artículos, la persona titular de la institución local podrá imponer una sanción de entre 90,10 y 45.000 € por cometer una infracción grave, es decir, por «el abandono, vertido o eliminación incontrolado de cualquier tipo de residuos no peligrosos sin que se haya puesto en peligro grave la salud de las personas o se haya producido un daño o deterioro grave para el medio ambiente».

1. Serán infracciones muy graves:

a) Negar información sobre residuos que puedan ser peligrosos y tóxicos después de que el Ayuntamiento haya realizado el requerimiento correspondiente.

b) Dejar animales muertos en la vía pública.

c) Depositar residuos no incluidos en la recogida a domicilio (según la presente Ordenanza) entre los residuos urbanos.

d) Deteriorar deliberadamente los contenedores y herramientas dispuestos para la recogida de residuos urbanos, mediante formas o medios que tengan como objeto destruir o cancelar el servicio.

Se considerará infracción muy grave, asimismo, recibir dos sanciones por infracción grave en el periodo de un año.

2. Serán infracciones graves:

a) Depositar los residuos en el lugar en el que deba depositarlos otra persona usuaria, y/o mezclar los residuos.

b) Negarse a dejar los residuos generados en manos del servicio de recogida sin causa justificada y cuando resulte obligatorio.

c) Dañar funcional o estéticamente los medios de recogida de residuos, siempre y cuando no se considere infracción muy grave de acuerdo con la parte d) del punto anterior.

d) Mover las herramientas para la recogida de residuos, cambiarlas de lugar o utilizarlas de forma indebida, siempre y cuando, en ese último caso, se actúe sin autorización previa de la administración y puedan generarse situaciones peligrosas o se pueda dificultar la recogida de residuos a las personas empleadas en el servicio.

f) Impedir o dificultar los trabajos de carga, descarga y transporte de residuos.

g) Hondakinak zuzenean, ibai, erreka edota estolderia edo saneamendu saretik botatzea.

h) Hondakinak behar bezala utzi ondoren, lapurtzea.

i) Merkataritzan erabiltzen diren bilgarriak edo kartoizko kaxak tolestu gabe uztea, edo Ordenantza honetan ezarritakoa bete gabe uztea, betiere horren ondorioz oinezkoen edo ibilgai-luen joan- etorria eragozten bada.

j) Hondakinak utzi dituen pertsona arrazoi justifikaturik gabe ez identifikatzea, Udalak dagokion errekerimendua egin ondoren.

Halaber, arau-hauste larria izango da 2 zigor jaso izana arau-hauste arinagatik urtebeteko epean.

3. Arau-hauste arinak dira:

a) Hondakinak Udalak zehaztutako moduak errespetatu gabe, hondakinak uzteko lekuetatik kanpo, edo zerbitzuaren egutegitik edo ezarritako ordutegitik kanpo uztea. Hau da, Ordenantza honetako II. Tituluan jasotako artikuluen aurka jokatzeko.

b) Hondakinak manipulatzeko, horretarako arrazoi justifikaturik gabe.

c) Hondakinak bide publikoan botatzea.

d) Lursail publiko eta pribatuetan hondakinak erretzea.

e) Hondakinak ontziz aldatzea edo mugitzea, horretarako arrazoi justifikaturik gabe.

f) Bide publikoan aldi baterako jarrita dauden obra-hondakinak biltzeko edukiontzietan hondakinak uztea.

g) Substantzia likidoak, likidotu daitezkeenak edo isurketak eragin ditzaketenak uztea.

h) Birziklapenerako aurreikusitako hondakinak jasotzeko zerbitzuari hondakinak bereizi gabe uztea.

i) Hondakinak inolako antolamendurik gabe uztea, zerbitzuaren funtzionamendu egokia eragotziz.

j) Ordenantza jasotako gainerako arau-hausteak, arau-hauste larri edo oso larritzat sailkatuta ez daudenak.

39. artikulua. *Zigorrak.*

1. Aurreko artikuluan jasotako arau-hausteren bat eginez gero, zigor hauek ezarri ahal izango dira:

a) Arau-hauste oso larriak:

– Isuna: 450,00 € eta 45.000,00 € bitartekoa.

b) Arau-hauste larriak:

– Isuna: 90,00 € eta 450,00 € bitartekoa.

c) Arau-hauste arinak:

– Ohartarazpena.

– 90,00 € bitartekoa.

2. Zigorrek ezartzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: arau-haustea egin duen pertsonaren zirkunstantziak, erru maila, araua behin eta berriz hautsi izana; parte hartze maila eta lortutako onura, eta ingurumenari eragindako kaltearen neurria edota pertsonen osasuna kaltetzeko eragindako arriskua.

3. Zigorra ezartzeaz gain, Udalak eskubidea izango du kalte-galerengatik dagokion ordaina eskatzeko.

*Azken xedapena.*

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN OSORIK argitaratzen denetik hamabost egunera jarriko da indarrean.

Ormaiztegi, 2016ko urtarrilaren 11.—Jon Enrique Galarza, alkatea. (233)

g) Arrojar los residuos directamente a ríos, arroyos o a la red de alcantarillado o de saneamiento.

h) Robar los residuos después de que hayan sido depositados correctamente.

i) Depositar los envoltorios y las cajas de cartón utilizadas en el comercio sin doblarlas previamente, o depositarlas incumpliendo lo establecido en la presente Ordenanza, siempre y cuando ello dificulte la circulación de viandantes o vehículos.

j) No identificar (sin razón justificada) a la persona que haya depositado los residuos, después del requerimiento previo del Ayuntamiento.

Se considerará infracción grave, asimismo, recibir dos sanciones por infracción leve en el periodo de un año.

3. Serán infracciones leves:

a) Depositar los residuos sin respetar las formas fijadas por el Ayuntamiento, fuera de los lugares de recogida o fuera del calendario u horario del servicio. Es decir, actuar en contra de lo recogido en el Título II de la presente Ordenanza.

b) Manipular los residuos sin razón justificada.

c) Arrojar residuos a la vía pública.

d) Quemar residuos en terrenos públicos y privados.

e) Cambiar los residuos de un contenedor a otro o moverlos sin razón justificada.

f) Depositar residuos en contenedores dispuestos temporalmente en la vía pública para la recogida de residuos de obra.

g) Dejar sustancias líquidas o sustancias que puedan convertirse en líquido o generar vertidos.

h) Dejar al servicio de recogida residuos reciclables sin separarlos.

i) Depositar los residuos sin ningún orden e impedir de esa manera el correcto funcionamiento del servicio.

j) Resto de infracciones recogidas en la Ordenanza, cuando no sean consideradas graves ni muy graves.

*Artículo 39. Sanciones.*

1. En el caso de que se produzca alguna de las infracciones mencionadas en el artículo anterior, podrán imponerse las siguientes sanciones:

a) Infracciones muy graves:

– Multa: entre 450,00 € y 45.000,00 €.

b) Infracciones graves:

– Multa: entre 90,00 € y 450,00 €.

c) Infracciones leves:

– Advertencia.

– Hasta 90,00 €.

2. A la hora de imponer una sanción, se tomarán en consideración los aspectos siguientes: las circunstancias de la persona que haya cometido la infracción, el grado de culpa, la reiteración de la infracción, el grado de participación y el beneficio obtenido, y el daño producido al medio ambiente o el nivel de riesgo de perjudicar a la salud de las personas.

3. Además de imponer la sanción correspondiente, el Ayuntamiento tendrá el derecho de exigir la remuneración correspondiente por daños y perjuicios.

*Disposición final.*

La presente Ordenanza entrará en vigor a los quince días contados desde su publicación íntegra en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Ormaiztegi, a 11 de enero de 2016.—El alcalde, Jon Enrique Galarza. (233)